

**TERESA LISIEUXKOA,
SANTA GAZTEA (1873-1897),
ELIZ IRAKASLE 1997-X-19**

1997ko abuztuaren 24an, gutxi gorabehera milioi bat pertsonaren aurrean, Parisen egindako munduko Gazte katoliko-en batzarrean, Aita Santu Joan Paulo II.ak Santa Teresa Jesus Haurrarena (Teresa Lisieuxkoa) datorren urriaren 19an **Eliz Irakasle** izendatuko zuela iragarri zuen. Pozarren entzun zuen jendetzak iragarpen hori txalo-zaparrada artean... Eliz Irakasle, milurteko honen hondarreko eta etortzekoa deneko gazteentzat..


Historian zehar hirugarren emakumea da. 1970ean Santa Teresa Avilakoa eta Santa Katalina Sienakoa, Eliza Katolikoaren Irakasle izendatuak izan ziren, maila hori lortzen zuten lehenengo bi emakumeak izanik.

1932an jadanik eskatua zen eliz irakasletza Lisieuxko karmeldar gaztearentzat... Baina izendapen hori zuen emakumerik garai hartan ez zen eta, ezetza eman zitzaion...

1973an Gabriel-Marie Garrone kardinalak ageri-agerian hitz egiten zuen aukera horretaz. 1981ean, Roger Etchegaray, kardinal euskaldunak, Frantziako apezpikuen biltzarreko buru zen aldetik, ofizialki eskatu zion Aita Santuari Eliz Irakasle izendapen hau egin zezala. Gero turrustaka zabaldu ziren han-

hor-hemen aldarrikapen hori eskatzen zuten hainbeste pertsona aipagarri eta erakunderen ahotsak... Eta, hain zuzen ere, bere heriotzaren mendeurreneko ospakizunen ondoren izango da izendatua Eliz Irakasle; ebanjelio-bideko maitasunean irakasle...

Hau dela eta argitaratzen ditugu *Karmel* aldizkariaren zenbaki honetan bi idazlan luze. Honelako aldarrikapenen aurretik, Elizak, bere teologo eta adituen bitartez, liburu ofizial bat prestatu ohi du. Gu, hor datozen kapitulu sakon eta luzeetatik laburpen xume bat egiten saiatu gara bi artikulutan. Aditu talde baten ikerketen ondorioa den liburua honako hau duzue: (CONGREGATIO DE CAUSIS SANCTORUM), *Concessionis tituli Doctoris ecclesiae Universalis S. Teresiae a Iesu Infante et a Sacro Vultu, moniali professae Ordinis Carmelitarum Discalceatorum in monasterio lexoviensi*, Cabellione (Ex Typis Rogeri Rimbaud) 1997. 940 - [26] orr. Izenburua latinez badator ere, liburua bera oso-osorik frantsesez idatzia dago.



TERESA JESUS HAURRARENAREN DOKTRINAREN BIKAITASUNA

Dauden liburu eta dokumentazioa kontuan izanik, Teresa Liesieuxkoa santa eta historian zehar elizaren bizitzan itzal handiko autore espiritual delako argi dago: hizkuntza askotan egindako haren idazlanen argitalpen ugariak hori erakusten dute. Gainera, haren doktrina Elizaren bizitzan asko erabili dute Elizako Magisterioak, Apezpikuek, teologoez eta Jainkoaren herriak berak.

Haren doktrina espiritual originaltasunez betea da. Bere garaian atzean utzi zuen orduan pil-pil zegoen jansenismoa eta, senak hartara eraginda edo, XX. mendeko espiritualitatearen zenbait gauzari aurre hartu zien; Elizaren fedeko gai nagusiei heldu zien, sen espiritual bereziz, gazte-ikutu freskoz ulertu eta bizi izan zituelarik, eta halako batzuk originaltasun handiz ere bai.

Haren idazkiak Eskritura Santuaren iturri gardenetik, Elizaren tradizioetik, Karmelgo Irakasle bikainen, Teresa Jesusenaren eta Joan Gurutzekoaren, eskolatik datoz, edota Erdi Aroko lanetan, esaterako, *Kristoren Antz-Bidean*, eta autore garakideengan hartzen dute argia.

Haren doktrina, Elizaren Magisterioaren barruan, bizi-bizia izan da, beraren idazkiak lehenengoz argitaratu zirenetik gaur

arte. Liturgiak berak ere Teresa, konfiantza eta haurtasun espiritualeko bidea santutasunerako bidetzat irakasten dizkiguna, bizitza espiritualeko irakasle legez agertzen digu.

Haren doktrinaren oihartzun bizia argi-argi agertu da. Santutasunaren, teologiaren, erlijioso-bizitzaren, oraingo eliz mugimenduen eta komunitate berrien era ezberdinak hartzen ditu bere baitan, bere espiritualitateaz eta apostolutzaz guztiei argi eginik. Teresaren oihartzuna ez da mundu osoko Elizara mugatzen; autore bikainen bidez gizartera, komunikabideetara, katoliko ez diren elizetara, areago oraindik, kristau ez direnenganaino ere iristen da haren eragina.

Bidezko da norbere buruari geldetzea, hau guztiau nahiko ote den haren doktrina "bikaintzat" hartzeko, Eliz Irakasle tituluaz ohoratzeraino.

Zer da, ba, Elizak doktore-titulua emateko eskatzen duena? Zeintzuk dira horretarako irizpideak? Betetzen ote dira Teresarengan Eliz Irakasle izendatua izateko baldintza eta irizpideak?

I. "Eliz Irakasle" titulua

1. Eliz Irakasle titulua eta behar diren baldintzak

Eliz Magisterio gorenak Doktore titulua eman die historian zehar beren santutasun eta doktrina bikainagatik bereziak izan diren santu batzuei. Elizak haiengan argi bereziaz agertu izan dela uste izan du egiaren distira eta Espiritu Santuaren dohaina kristau-doktrina defendatzeko eta argitzeko Jainkoaren Herriaren alde.

Titulu hau emateko jarraitu izan diren irizpideak ezberdinak izan dira Ekialdean eta Mendebaldean. Ekialdean Eliz

Irakasle izendatzeko "hiruko" eskema bat izan da nagusi. Horrela, hasieran, San Gregorio Naziantzokoa, San Joan Krisostomo eta San Basilio Handia izan ziren Eliz Irakasle izateko hautatuak. Baina berehala gehituko zitzaien beste izen bat: San Atanasioarena.

Mendebaldean, Bonifacio VIII.aren garaian (20-XI-1295) ospe bereziaz agertzen dira Mendebaldeko Elizaren lau irakasle hauek, ordena honetan: San Gregorio Handia, San Agustin, San Ambrosio eta San Jeronimo.

Erdi Aroaren amaieran Eliz Irakasle izendapena eman zitzaien Ekialdeko lau gurasoei eta aipaturiko mendebaldeko beste lauei.

Eliz Irakasle titulua beste autore batzuegana zabaldurik, izatera berri bat hartu zuen Pio V.ak S. Tomas Akinokoa Eliz Irakasle izendatzen duenean *Mirabilis Deus* Konstituzio apostolikoaren bidez, 1567an. Honela, antzinatasunaren irizpidea ez da kontuan hartzen eta bai santuen doktrinaren garrantzia Elizaren historian zehar, fedearen aldeko euskarri legez, eta horrela autore batzuegan jakinduriaren argia eta Espiritu Santuaren dohaina aitortzen ziren.

Hogei urte geroago, Sixto V.ak Eliz Irakasle titulua aitortzen zion San Buenabenturari.

Gerora beste Aita Santu batzuek ere Eliz Irakasle titulu hori aitortu diete hainbat santuri, 30eraino iritsi direlarik. Horietatik azkena San Lorentzo Brindisi-koa izan zen, Joan XXIII.ak 1959an izendatua.

Urrats berri-berria eman zuena Paulo VI.a izan zen. Pio XI.aren garaira arte ez zen uste hori aurrera atera daitekeenik. Orduantxe agertu zen Santa Teresa Jesusena eta Santa Teresa Jesus Haurarena Eliz Irakasle aldarrikatzeko aukera. Baina horrek oztopo gaindiezina zuela zirudien, honela esaten zena: *Obstat sexus!* Eliz Irakasle izatetik emakumeak baztertu beharra somatzen zen garai hartako pentsaieran, San Pauloren testua

estuegi ulertzetik zetorrena: "mulieres in ecclesiis taceant..." (Ik. 1 Kor 14,34).

Paulo VI.ak Teresa Jesusena eta Katalina Sienakoa Eliz Irakasle aldarrikatzea erabaki zuenean, garai hartan Errituen Kongregazioa zeritzonak egindako azterketa zehatz eta sakona izan zuen oinarri. Lau teologo bikainek, disziplinarteko ikerketa batetik abiatuz, baiezkotz iritzia eman zuten; hau da, emakume santuak Eliz Irakasle izendatu ezinik ez dela. Aldarrikapen horretarako bidea irekitzen zuen lana, "Positio" delakoan bildu zen (*Positio peculiaris super dubio an titulos et cultus Doctoris Ecclesiae tribui possit sanctis Mulieribus, quae santitate ac eximia doctrina ad commune Ecclesiae bonum magnopere contulerun*. Typis Poliglottis Vaticanis, 1969).

Baiezko iritzi hauek kontuan izanik, Paulo VI.ak, emakume batzuk Eliz Irakasle izendatzeko gogoia erakutsi ondoren (1967-X-15), Santa Teresa Jesusena eta Santa Katalina Sienakoa aldarrikatu zituen Eliz Irakasle, 1970eko irailaren 27an bata eta urriaren 4an bestea. Honela, Elizan, beren santutasun eta doktrina bikainagatik apartak diren emakumeak titulu horrekin ohoratzeko bidea irekita gelditzen da.

2. Eliz Irakasle aitortzeko irizpide zaharrak eta berriak

Bien bitartean honako hau galde geniezaioke geure buruari: Zeintzuk dira tradizioak eta Magisterioak Eliz Irakasle titulua eman ahal izateko finkatu dituen irizpideak?

Ezagunak dira Aita Santu Benedicto XIV.ak jarri zituen baldintza klasiko haiek: "Ad constituendum porro Ecclesiae Doctores, tria sunt necessaria: eminens scilicet doctrina; insignis vitae sanctitas... et praeterea Summi Pontificis aut Concilii Generalis legitime congregati declaratio".

Historian zehar aldakuntzak izan dira *eminens doctrina* delakoari dagokion irizpidean.

Benedicto XIV.ak agertutako irizpideak klasikoak dira eta Bonifazio VIII.aren *Gloriosus* dekretuan ere aurkitzen ditugu jadanik. Irizpide hauen arabera, doktoregaiaren doktrinaren bikaintasuna erabakitzeke, Jainkoak iragarritako egien alde hark egiten duen argia hartzen da kontuan, hau da, santuaren doktrinari esker, "*errorum tenebrae fuerint profugatae, obscura fuerint dilucidata, dubia declarata, Scripturarumve aenigmata reserata*".

Irizpide hauek batez ere doktrinari dagozkionak dira, hau da: Eskritura Santuko egiaren alde beti ere, bai uste okerren aurkako borrokan, bai zalantzak argitzean eta bai Errebelazio-ko misterioak eta fedeak proposatzen dizkigunak azaltzerakoan erakusten den jakinduria goi-mailakoan.

Joan zen mendearen azkenerrantz beste irizpide batzuk gehitu ziren, San Alfonso Maria Ligorio Eliz Irakasle izendatzean. Kasu honetan argi eta garbi azpimarratzen zen Eliz Irakaslearen doktrinak eragin mesedegarria izatea, hau da, "*in bonum Ecclesiae*" izatea zenbait ingurune berezitan: "*sive in confutandis invalescentibus erroribus, sive in illustrandis sacris Litteris, sive in explanando Revelationis deposito, sive in dirigendis moribus*".

Honela, irizpide hauek Eliz Irakaslearen egitekoa zabaldu egin ohi zuten Elizaren onerako, ez Jainkoak iragarritako egiei dagokienez soilik, baita kristau-bizitzari eta ohiturei dagokienez ere.

Santa Teresa Jesusena eta Santa Katalina Sienakoaren kasuan, fedeko egietan eta bizitzaren santutasunean goi-mailako testigantza-emaile eta maistra izanik, haiek Eliz Irakasle aldarrikatzeko kontuan izan dira, era berean, fede-doktrinaren bideratze berezia, mistikoen testigantza, Elizaren santutasunaren alde bizitza espirituala garatzea.

II. "Doktrina bikaina" dela antzemateko irizpideak eta nola ezartzen zaizkion Santa Teresari

Orain, Fedeko Doktrinarako Kongregazioak ematen dituen oinarritzko irizpideak abiapuntutzat harturik, Teresa Lisieuxkoarengan "eminens doctrina" hori badela frogatzen saiatuko gara.

1. Jakinduriatzko dohaina, Espiritu Santuaren fruitua

Doktrina bikaina dela frogatzea Elizaren azterlan luze baten ondorioa izan ohi da. Azterlan horretan, doktoregaiari Elizaren onerako Espiritu Santuak emandako jakinduriatzko dohain berezirik ba ote den ala ez ikusten da, hori Jainkoaren Herriarengan haren idazki eta doktrinak izan duten eragin mesedegarriaren bidez agertzen delarik (Ik. *Lumen gentium*, 12.zk.)

Elizak Doktore-karisma benetan badela aitortzea, Espiritu Santuaren fruitu den jakinduriatzko dohain berezi bat oinarritzat harturik egiten du. Egia esan, Elizak ez du inor Doktore egiten. Espiritu Santua da Doktoreak sortzen dituenak. Elizak jakinduriatzko dohain hori aitortu eta aldarrikatu besterik ez du egiten. Azterlan zehatz eta zorrotz baten ondoren, hark, santu honengan edo harengan jakinduriatzko dohaina, Espiritu Santuaren fruitua dena, antzematen du, haren doktrinak berez duen balioagatik edota Jainkoaren Herrian santu hark, bere idazkien bidez, izan duen eragin mesedegarriagatik.

Ez dirudi zaila denik Teresa Lisieuxkoarengan Jainko-Maisuarengandik jasotako dohaina, Espirituaren jakinduriatzko karisma antzematea, Elizaren onerako, haren idazkiek Jainkoaren Herriagan duten eragin mesedegarriak hori frogatzen duelarik.

Ezbairik gabe esan dezakegu Teresak baduela karisma bat, Espirituaren dohain bat Elizaren onerako. Eta irakaskuntzako dohain bat da, izan ere. Hark Jainko berarengandik datorren autoritate espirituala du, Ebanjelioko iturritik edandako doktrina legez agertzen zaiguna eta esperientzia espiritualaren fruitu

dena, baina bere barruan duen autoritatearen markaz. Teresa bere doktrinaren egiaz bete-betean sinetsirik agertzen zaigu, eta fedeko egiak eta kristau-bizitzakoak adieraztean erakutsi ohi duen indar bereziaz.

Teresa Lisieuxkoaren lanak irakurtzean harrigarrienetakoa gertatzen zaiguna, jakinduriatzko dohainez jantzia zela, apaltasunez, baina geroago eta argiago jabetuz joan izana da. Jesus Maisuak irakatsita, Jainkoaren misterioaren sakon-sakoneraino iristeko dohain berezia hartu duela jabetzen da. Hortxe datza haren jakinduria.

Bere ahizpari, Ama Ainesi, eskainitako A Eskuizkribuaren lehen orrialdeetatik, ia berez iriteten zaio Elizan duen bere bokatzioaren aipamena, berak ausarki Elizako Doktoreekin erlazionatzen duenari. Harrigarria da nola doan garatuz harengan Elizan berak zuen egitekoaren kontzientzia edo antzeko zerbait. Hark ez du zalantzarik Elizan maisu-dohainez jantziak izan direnei buruz argi eta garbi hitz egiteko. Eliz irakasle handiak gogoratzen dizkigu, "beren irakatsiaren distiraz Elizari argi egiten dioten Santu Irakasleak" (A Esk. 2-3^a). Haren bizitza bokatizio hau indartsu adierazteko dela dirudi, hau da, beraren esperientzia mundu osorako izango den doktrina espiritualean entzunarazteko.

Hautzaroan, sakramentuak hartzeko prestatuz dotrina ikasten ari zela, bere irakasle Domin apaizak, gero izango zena aurrez usnaturik-edo, goiz-goizetik "doktoretxo" deitzen dio. Erlijioiko gauzak ikasteko zuen erraztasunagatik eta Avilako Teresaren izen bera zuelako deitzen zion horrela, hura herriak Eliz Irakasleatzat hartzen baitzuen (A Esk., 37).

Badakigu hark, gaztetxo zela, jakinduri gose handia izaten zuela; liburuak irentsi beharrean aritzen zela (A Esk., 31). Baina liburuak irakurtzetik bere bihotz barruan Jainko-Maisuari entzuterat igaro zen. Jesus izan zuen bere arimako zuzendari, bere barruko irakaskuntzara zabalarazi zuena. "Ene alaba hori, Gure Jauna izan dadila beti zure nagusi eta zure nobiziatuko maisu".

Hura zen, izan ere, dio Teresak, "nire Zuzendari" (A Esk., 70^a). Esacra hau, "Jesus nire Zuzendari", sarri errepikatzen du Teresak, Maisu honen eskolakoa izateaz zeharo pozturik (A Esk., 74^a). Zuzendarien zuzendari: "Jesus izan zela 'nire zuzendari' esan dut. Karmelen sartzean ezagutu nuen zeregin hori izan behar zuena. Baina bere alaben artean hartu nindueneko, er-besterantz irten zen... Berehala galtzeko ezagutu nuen... Urtean haren gutun bat baizik jasotzen ez nuela, nik hari idazten niz-kion hamabien ordezt, nire bihotzak laster jo zuen zuzendarien zuzendariarengana, eta hura izan zen jakintsu eta zuhurrentzat ezkutuan dagoen eta *txikienei* agertzea nahi izan zuen zientzia horretan eskolatu ninduen..." (A Esk., 71^a).

Hark argi ikusten du Jesus dela bere barruko maisu, irakas-ten dion Zuzendaria eta Eskritura Santuko misterioak ulertaraz-ten dizkiona Jainkoaren gauzen ulerpen sakon batez. Haren ja-kintzak beti ditu iturritzat Eskritura Santuak eta batez ere Eban-jelioa. Baina barru-barruan, barneko Maisuaren hitzarekin harremanetan, hark argitua, hark eskolatua ikusten du bere burua, jainko-misterioetan Espiritu Santuaren ohiko argiz. Ho-na hemen bere jakinduriaren iturriaz hitz egiten duen pasarte zoragarri bat: "Baina otoitzaldian eusten didana, gauza guztien gainetik, *Ebanjelioa* da; hor aurkitzen dut nire arimatxo gaixo honek behar duen guztia. Beti agertzen zaizkit argi berriak, esanahi ezkutuak eta misterioak..." Teresa bere Maisuaren jakinduriarekin kontaktuan dago. Argi eta garbi baieztatzen du berak: "Ulertzen dut eta esperientziak dakit Jainkoaren erre-i-nua gure barnean dela". Jesusek ez du libururik ez doktorerik behar arimek irakasteko; berak, doktoreen Doktoreak, irakas-ten du hitz-zaratarik gabe... Sekula ez diot entzun hitz egiten, baina badakit nire barruan dela. Hark gidatzen nau eta irakas-ten dit unean-unean esan eta egin behar dudana. Ordurarte ikusi gabeko argiak aurkitzen ditut, behar ditudan unean aur-kitu ere. Eta gehienetan argitasun hauek ez dira, hain zuzen ere, ugariago izaten otoitzaldian, eguneko zereginen tartean baizik..." (A Esk., 83).

Adierazpen zoragarria da, zehatza eta egi-egiazkoa. Bera ez dela, dio Teresak, Jesus ikusten eta hari ulertzen dion mistiko bat. Jakinduria fedearen eta maitasunaren bidez hartzen du berak, hau da, bertute teologalen bidez..

B eskuizkribu osoa, bere ahizpa Maria Bihotz Sakratuarenari egiten dion eskaintzatik hasita, Jesusek irakasten diolako komentzimenduz betea dago. Teresa ongi jabetzen da Jaunak berak agertu dizkion sekretuez. Orain berak zabaldu egin nahi ditu, garbi baina zaratarik gabe "jainko-irakaspenak" deitzen dituenak (B Esk., 1^a). Haren jakintza, iluntasunean ere, maitasunezkoa da: "Ez uste izan poz-eztitan nabilenik. Ez horixe! Nire poza lurrean pozik ez izatea da. Bere burua agertu gabe, bere ahotsa entzunarazi gabe, Jesusek isilean irakasten dit; ez liburuen bitartez, ez baitut ulertzen irakurtzen dudarik. Baina batzuetan, esaldi bat otoitzaldiaren azkenean aurkitu dudak bezalakoa (isilik eta idortasunean iraun ondoren) datorkit poza ematera: 'Hona hemen ematen dizudan maisua; berak irakatsiko dizu egin behar duzun guztia. Bizitza-liburuan irakurrazazi nahi dizut, hortxe baitago maitasun-jakintza' " (B Esk., 1^a).

Pentsamendu hera dator Ama Maria Gonzagarenari eskainitako C eskuizkribuan ere. Jaunak sekretu ezkutuak agertu dizkio, gaztetatik irakatsi dio hark (C Esk., 3^a-). Santu askok ez digutela idazki bat ere utzi gogoratzen digu Teresak; badira beste batzuk, ordea, "gure Ama Teresa santua bezala, euren agerkari gorenez Eliza aberastu dutenak, Erregearen sekretuak agertzeko beldurrik izan gabe, hura arimentzat ezagutuago eta maitatuago izan dadin". Apaltasunez baina aldi berean egiaz, Erregearen sekretuak aldarrikatu behar dituzten haien izenean bidalia ikusten du bere burua (C Esk., 2). Ezagutza, jakinduria dena, karisma bihurtzen da, Kristok egiten dion dohaina beste batzuei bere argia, bere doktrina emateko.

Haren sekretua, santuena eta hauen artean Doktore handi eta fundatzaileena bezala, kontenplazio-otoitza da: "Santu guztiek ulertu dute eta batez ere, beharbada, Ebanjelioaren doktri-

naren argiz unibertsoa bete dutenak. Ez ote zen otoitzean izan santuek Paulok, Augustinek, Joan Gurutzekoak, Tomas Aquinokoak, Frantziskok, Domingok eta beste Jainkoaren adiskide argi askok jeniorik handienak lilurutzen dituen jainko-zientzia hura edan zutena?" (C Esk., 36^a).

Ebangelioa irakurtzean, Teresa, berari zergatik eman izan zaion jakinduria hau ulertu nahirik ari da. Jainko-jakinduriaren esparruan sartua izan dela bete-betea sinisturik dago, hain zuzen ere bera txikia delako. Eta hau, era berean, haren mezuaren ezaugarrietariko bat da: *Txikiei emandako jakinduria*.

Izan ere, Espiritu Santuaren hitza zehatz-mehatz betetzea besterik ez da: "Norbait txikitxoa bada, betor niregana... errukia txikiei ematen zaizela..." (B Esk., 1^a). Teresaren uste sendotariko bat Ebanjelioaren indar eta egian oinarriturik dago.

Mt 11, 25 testua beti aipatzen du berak errebelazioaren testuinguruan. Atal hau biltzen duten Teresaren testuak kontaezina dira eta beti daude grazia berezi bat jaso duenaren uste sendoz beterik: Jesus agertzen zaio berari eta horrela Ebanjelioko agintzaria betetzen du: "Bere bizitza hilkorreko egunetan, pozez beterik, 'Goresten zaitut, ene Aita, gauza hauek jakintsu eta ikasiei ezkutatu dizkiezulako eta jende xumeari agertu' esan zuenak nigan bere errukia distiratsu ager zedila nahi zuen. Ni txikia eta ahula nintzelako, hura nireganaino jaisten zen, ezkutuan bere *maitasunaren gauzetan* eskolatzen ninduen. Ail Jakintsuak, euren bizitza ikasten eman ondoren, niri galdetzeraz etorri balira, benetan txunditurik geldituko ziratekeen hamalau urteko haur batek nola ulertzen dituen perfektioaren ezkutua ikusirik, beraiei zientziak agertu ezin dizkien ezkutua, horren jabe izateko gogoz behartsu izan behar baita!..." (A Esk., 49^a).

Hura Jainkoaren dohaina den jakinduria ukitua dago. Harritu egiten da, munduak benetako jakinduritzat duena barietate bestelakoa delako berea: "Nire esperientziarik ezak, nire gaitetasunak ez zaituzte ikaratu. Beharbada, gogoan izan ze-

nuen Jaunak maiz izaten duela aintzat txikiei jakinduria ematea, eta behin pozez gainezka, bere Aita bedeinkatu zuela bere isilpekoak zuhurrei ezkutatu eta txikienei agertu zizkielako. Badakizu, ene Ama, gutxi direla Jainkoaren ahalmena euren pentsamendu laburren arabera neurtzen ez duten arimak. Lurrean gauza guztietan salbuespenak izatea nahi dute; dirudienez, Jainko onak soilik ez du hori egiteko eskubiderik! Badakit nik esperientzia urteen arabera [neurtzeko] era hau gizakien artean oso aspaldidanik betetzen dela, bere gaztaroan Dabid errege santuak Jaunari kantatzen baitzion: - '*gaztea* naiz eta *mesprezatua*'. Hala ere, 118. salmo berean ez da honako hau esateko beldur: 'Zaharrak baino zuhurrago bihurtu naiz, zure nahia bilatu dudalako... Zure hitza nire pausuak argitzen dituen kriseilua da... Gertu nago zure aginduak betetzeko, eta *ezerk ez nau ikaritzen*' " (C Esk., 4^a). Berak ere, Dabidek bezala, bere burua gazte zentzuduntzat du.

Teresak xaloki aitortzen du Jaunak bere adinari dagokion baino goragoko jakinduriaz jantzi duela eta bere-bere egiten du Andre Maria, Nazaretheko gaztearen *Magnificat* kantua, onako hau aitortzeko: "Nahiago dut lau-lau aitortzea Ahalguztidunak gauza handiak egin dituela bere Jainko-Amaren alabaren ariman; eta guztietatik handiena bere *txikitasuna*, bere ezintasuna ezagutaraztea izan da, hain zuzen ere" (C Esk., 4^a).

Teresak konparazio ospetsu hau erabiliko du: "beti baliatu izan da bitarteko gisa bere sorkariez arimetan bere lana egiteko. Artista batek pintatutako mihiseak pentsatu eta hitz egin ahal balu, ez litzateke, noski, kexatuko *pintzel* batek eten gabe ukitzeaz eta berrukitzeaz; eta ez luke tresna horren zoriaren inbidiarik ere izango, badakielako bera janzten duen edertasuna ez diola pintzelari zor, hura erabiltzen duen artistari baizik. Pintzela, bere aldetik, ezin izango da harropuztu berak egin duen obra bikainagatik. Badaki artistek ez dutela oztoporik aurkitzen, barre egiten diela zailtasunei, atsegin zaiela batzuetan tresna ahul eta akastunak aukeratzea..." Teresa pintzel txikitxo da Jainko-artistaren eskuetan (C Esk. 20^a).

Teresa ongi jabeturik dago jakinduriatzko dohaina jaso duela eta zabaltzeko mezu bat duela. Ez da, ez, komentzimendu subjektiboa. Bete behar duen apostolu-zeregina jaso du, zabaldu behar duen mezu bat. Eta mezu hau, argi ikusi denez, Elizak bete-betean onartua izan da. Izan ere, Elizaren Magisterioak, mende honetako Aita Santuek aho batez egindako aitopenen bidez, horixe berresten du Teresaren doktrinaren kanpotik. Eta hau argi ageri da, gainera, ohiko Magisterioak adierazten duen Elizaren doktrina espiritualala, Vatikanoko II.aren testuetan, ia berez haren intuizio doktrinalak onartu izatean.

Haren eliz karismari eta irakaskuntzakoari benetako sendotasun eta sinesgarritasuna ematen diona, Jainkoaren Herriak Teresaren doktrinari egin izan dion onarpen zabala izan da.

Era berean gure garaiko Eliza Katolikoaren teologorik handienek ere bete-betean onartu dute haren irakaspena, Yves Congar-engandik hasita Hans Urs von Balthasar-enganaino; hauek Teresa Lisieuxkoaren eginkizun teologikoaz hitz egin dute eta Elizako Doktore handien ondoan ezartzekoa dela uste dute.

2. Doktrina teologiko eta espiritualaren bikaintasuna

Orain egiaztatu beharra dugu ez bakarrik doktoregai diren Santuen irakaspena bat datorrela fedearekin eta kristau-bizitzarekin, baizik eta goi-mailakoa dela kalitate eta idazkien kopuruagatik, doktrinaren gorentasun eta sakontasunagatik, jakinduriatz markaturiko sintesi helduagatik, izan duen eragin mesedegarriagatik, horrela Elizaren tradizio biziaren testigantza aparta bihurtzen delarik (Ik. *Dei Verbum*, 8. zk.).

Teresak ez du asko idatzi: bere hiru eskuizkribuak, gutunak, olerkiak, deboziozko solas-antzerkiak... Baina hark idatzi duena, guztia bere-berea zuen estiloaz markaturik, Ebanjelioko doktrinaren gorentasun eta sakontasunagatik aparta da. Hark espiritu-bizitzaren sintesi heldua erakusten du, eta fedeko dogma nagusietan oinarritzen da, berak bizi izandako esperientzia zehatz legez adierazten dituelarik...

Beharbada, ez dugu Teresarengan bilatu behar pentsamenduzko doktrina teologikoaren gorentasunik, antzinako Doktore handiengan eta Erdi Arokoengan bezala, baina oinarritzko jakinduria bai aurki genezake, bere barruan bizi izandako esperimentziaren teologia narratiboa, teologia bizi-bizi eta zorrotza.

Haren mezua bizi izandako fedearena da, berehala egitez bete zuen Ebanjelioarena, bere ingurunean bat-batean bizi izan zuen jakinduriarena.

Guztiok garelako santutasunera deituak. Hona hemen Teresaren mezua; guztientzat zabalik dagoen Ebanjelioa. Merezi du aipatzeko Teresak A Eskuizkribuaren lehen orrialdeetatik heldutasun handiz printzipio nagusietan agertzen digun irakaspenak:

“Perfekzioa haren borondatea egitea da, hark gu izatea nahi duena izan gaitezela...” (A Esk., 2).

“Nik ulertu dut Gure Jaunaren maitasuna arimarik gurenean bezain ongi agertzen dela haren graziari ezertan kontra egiten ez dion arimarik xumeenean. Izan ere, maitasunari dagokiona beheratzea izanik” (A Esk., 2).

“Eguzkiak era batera zedroak eta lore txikiatariko bakoitzak, lurrean bera bakarrik bailitz bezala, argitzen dituen bezala, era berean Gure Jauna ere bakarka arduratzen da arima bakoitzaz” (A Esk., 3^a).

“Eta izadian, urtarok bitxilorerik xumeenari markaturiko egunean irekiarazteko ezarriak daudenez, era berean arima bakoitzaren onari begira dago guztia” (A Esk., 3^a).

Haren doktrina espiritualak, sistematikoki agertua ez bada ere, kristau-fedearen egia nagusiak zabal adierazten dizkigu, baina bizitza argitzen duen fede gisa, aitopen eta bizitza bihurtzen den fede gisa. Asko dira Teresaren teologiaren originaltasuna azpimarratu duten autoreak, bai hark eliz tradizioarekin duen loturari eta bai Vatikanoko II.eko Kontzilioaren doktrinarekin duenari dagokionez.

Ebanjeliarekin lotu-lotu egindako teologia da Teresa Lisieux-koarena; XIX. mendeko frantziar gazte baten bizitasun eta poesiaz adierazten dena. Guztian emakume-tankera nabari da, fedea eta bizitza bat-batera doazen berez-berezko espresioan.

Teresaren doktrinak, esan dugunez, gure fedeko misterio nagusiak hartzen ditu: Hirutasun Santutik hasita Eukaristiaraino; Kreaziotik hasita azken errealitateetaraino; Kristoren maitasunetik hasita bere bokazioa Elizaren bihotzean, Teresak bere Amatzat aitortzen duen Elizaren bihotzean, aurkitzeraino.

Haren eragin mesedegarriari dagokionez, horretaz dagoen dokumentazio ugariak argi uzten du, santa honek eta beronen doktrinak Elizaren baitan izan duten onarpen alai eta unibertsa, eta santutasun eta apostolutzan kontaezin ahalako fruituak eman dituela eta gaur egunean ere hala dirauela; Jainkoari norbere burua eskaintzea eta guztiongan Jainkoaren errukian itxopena izatea eragiten.

Hemen ikusten dugu nola betetzen den haren gurari gartsua: Ebanjelioaren mezua mundu osoan zehar zabaltzekoa, hemen bizi zen bitartean, baina baita hil ondoren ere.

B Eskuizkribuko orrialde ospetsuan, berak Elizan duen bokazioaren ederra azaltzen duenean, Elizaren bihotzean maitasuna izatea, aldi herean apostolu eta doktore izateko guraria ere agertzen du... Honela diosku berak:

"Ai! Neure txikitasuna gorabehera, arimak argitu nahi nituzke Profetak bezala, Doktoreak bezala. Apostolu izateko bokazioa dut... Munduan zehar nahi nuke ibili, zure izena iragarri, eta fedegabeko lurraldeetan zure Gurutze aintzatsua ezarri. Baina oi ene *Maite hori*, misio bakar bat nahikoa izango nuke. Aldi berean munduko bost zatietan iragarri nahi nuke Ebanjelioa, eta baita uharterik urrundenetan ere... Misiolari izan nahi nuke, ez urte batzuetan soilik; munduaren sorreratik hasita izan nahiko nukeen eta hala iraun mendeen azkenera arte..." (B Esk., 3^a).

Gurari hauek, Jaunak bete dizkionak ia guztiak, ispilatzen den argiaren sinbolo bidez ere adierazten ditu: "Bere aintza bere Amaren aurpegiak dirdiratzten duen errainua izango da" (B Esk., 4^a). Berak ez du argia beretzat nahi, ispilatzeko baizik, eta ez du argia hartzen berea haitlitzan, argiaren alabarengan ispilatzen den argi bezala baizik, Amaren aurpegian, Elizaren aurpegian dirdiratzten duen errainu bezala baizik (B Esk., 4^a). Horrez gainera, badaki Santuen elkartasunean haien dohaintzetan guztiok esku hartuko dugula: "doktooreekin doktore izango gara..." (Azken Elkarrizketak, Uztailak 13).

3. Fedearen eta kristau-bizitzaren zerbitzuan den doktrina

Elizaren doktoregaiak doktrina katolikoaren eta kristau-bizitzaren benetako maisu eta testiguak izatea komeni da, eta haien idazkiek argi aparta ekartzea fede katolikoaren aitormen eta defentsarako, Ebanjelioa zabaltzeko, gurtza eta bizitza espiritualak ongi ulertzeko, edota doktrina katolikoa bereziki menderatzeko.

Edozein doktrina ezin daiteke bikaintzat hartu, benetan aparta dena baizik. Ez bere ortodoxiagatik soilik, argi bereziz sakontzen dituelako baizik kristau-errebeldazio, doktrina, Eliz bizitza, teologia eta kristau-espiritualitatearen arloren bat edo beste, jakinduriazko eta heldutasunezko sintesi batean.

Teresa Jesus Haurarena bete-betean sartzen da errebelazio-ko mezua sakontzeko grazia izan duten santuen artean. Hark jaingo-errebeldazioaren edukia hain ongi ezagutzen zuen, bai otoitzaren bidez eta bai bere barruko esperientziaren bidez ere, non lekukotasun aparta eman ahal izan baitzuen jaingo-graziaren esperientziari buruz. Horrela asko egin du berak mundu osoan fedea defendatzeko eta zabaltzeko.

Hain zuzen ere, Santaren *doktrina bikaina* argi eta garbi agertuko da, haren esperientzia eta doktrinaren gauza erabakigarri batzuk kontuan hartuz gero.

a. Lehenengo eta behin goi-mailakoa da Teresarengan *Jainko Aita* eta *Maitasun Errukitsuaren* esperientzia handia, esperientzia bizi eta pertsonala. Esperientzia honetan du oinarria eta lotura haurtasun espiritualetako bidetxoaren doktrina osoak, txikitxoentzat izango den Erreinuari buruz, Jesusek Ebanjelioan ematen dituen irakaspenekin oso-osoan bat datorrena.

b. *Sorkarien pobretasun erabatekoa*. Teresak argi ikusten du bere ahalmen hutsez ezin salba daitekeela; bere indar hutsez ezin izango lukeela santu izan, eta pausu bat bera ere ezin izango lukeela eman berak bakarrik, eta bere salbamena Jainkoagan dagoela soilik. Haren "bidetxoak" erabateko pobretasuna esan nahi du. Honela, Teresak, Jainkoaren grazia guztiz beharrezkoa dela baieztatzen du, Jainkoagana zeharo irekirik, "dohain hutsa dela Guztia" aitortzeraino.

c. Jesusengan aurkitzen du berak Maitasun Errukitsuaren "errebelaioa", bizitza espiritualetako gainerako guztia bezala. Horregatik bizi izan ditu hain barrutik eta hainbesteko maitasunez beharuz (kontenplatuz) Salbatzailearen misterioak: haren haurtzarokoak, Eukaristiakoak, eta gar bereziz Aurpegi Santuaren bidez adierazten diren haren Nekaldikoak.

d. *Konfiantza, buru-uztea* dira haren irakaspenaren oinarriko bertuteak. Izan ere, horiek dira bertute teologalen adierazpena, eta Jainkoarekin bat egitean izaten den jarrera eta haren Maitasun Errukitsuak egiten digun harrera erakusten dute.

e. *Elizaren iritzia*. Elizak aparteko garrantzia hartzen du Teresa Lisieuxkoaren espiritualitatean, maitasun, zerbitzu, erenopari eta apostolutza-laneko errealtate den aldetik. Hau guztiau, Gorputz mistiko denez, Elizarengan duen fedetik eta misterio honen esperientzia bizitik sortzen da. Teresak Elizaren erdian aurkitzen du bere lekua, hau da, haren bihotzean, Espiritu Santuaren maitasunean, hark biziarazten baitu Eliza eta dohain guztiak baititu, S. Pauloren doktrinaren arabera.

f. *Andre Maria*. Andre Mariaganako dobozioak leku aparta du Teresaren espiritualitatean. Hark beren-beregi azpimarratu

du Ama Birjinaren amatasun espirituala. Baina haren teologia-ren eta Ama Birjinari dagokion espiritualitatearen gauzarik esaguratsuen, garai hartan gauza berri-berritza hartu zena, ez bairik gabe, Andre Maria xumetasunaren, fedearen, Jainkoaren borondatea onartzearen, sufritzeko prest egotearen eredutza hartzea izan zen bizitzako egoera normaletan. Hau da, bihotzez apal eta pobre diren guztien eredutza hartzea.

g. Teresa Lisieuxkoa testigantza aparta eta bizia da Elizak *azken errealitate* buruz duen fedeari dagokionez, hau da, "heriotzondokoei" dagokienez. Fede gartsuz bizi izan zituen berak, betiko bizitzan zuen itxaropena argi-argi erakusten duela-rik: "Ni ez naiz hiltzen, ni bizitzan sartzen naiz". Teresak santuen elkartasunaz komentzimendu sakon eta gartsua zuen; zeruan izango zuen egitekoa somatzen zuen; harentzat harreman estu-estua dago zeruko Eliza, lurreko Eliza eta sufrikariozko Elizaren artean, iritzi hau Vatikanoko II.ak Eliza eskatologikotik ari denean dioenez guztiz bat datorrelarik.

Teresaren ezaugarrietariko bat da, idazle ospetsu batzuek esan dutenez, esaterako, Jean Guittonek, betiko bizitza lurrean erro- mes diren neba-ahizpen aldeko misiotza hartzea; hau da, haien alde otoitzean eta haien salbamen-lanean jarraitzea. Hain zuzen ere, lurrean on eginez igaro nahi luke Teresak bere zerua.

4. Doktrina teologalaren eta izpiritualaren iturriak

Nabariago egingo zaigu argi eta garbi esaten badugu haren doktrina Jainkoaren Hitzaren iturri gardenetatik, tradizioetik eta Elizaren Magisteriotik datorrela, eta Espiritu Santuak eragiten duen jakinduriatzko sakontasunaz agertzen dela, hark errealitate eta hitz horiek ulertzen laguntzen baitu, bai errebelaturiko egiaren aldarrikapenaz, bai gogoeta teologikoz, bai azterketa eta kontenplazioaz, eta bai naturazgaitzako errealitateen esperimentazio sakonaz (Ik. *Dei Verbum*, 8.zk.).

Doktrina bat bikaintza hartzeko doktrina horren iturriak ere kontuan hartu behar dira. Hauek Elizaren bizitzaren iturri gar-

denak izan behar lukete, batez ere Jainkoaren Hitza, Espiritu Santuaren eraginez zabaldua eta transmititua, sakontze doktrinal batekin, bakoitzaren bokazio eta karismaren arabera.

Izaera hori bete-betean dagokio gure santa honi. Haren doktrinak Jainkoaren Hitzetik edaten du oso-osoan; Jesus Maisuaren irakaspenetatik, Espiritu Santuaren ekintza misteriotsutik. Harengan ez dago naturazgaindiko errebelazio berezirik formari dagokionez, baina bai substantziari dagokionez jakinduriaz beteriko exegesiaren argikuntza sakonak; Ebanjelioaren dardara sakona... Hura exegesi espiritual baten lekuko da, izatez eliz tradizioaren jarraipena dena, baina xehetasun berriekin, betiko Ebanjelioaren ulertzeko era berri eta gaurkotuarekin. Horregatik esan izan da santa honek mezu berria dakarrela: *Omen novum*.

Teresaren doktrinaren iturriak guztiz gardenak dira. Batez ere Jainkoaren Hitza da, berak hurbiltasun eta apartekotasun harrigarri bizi izan duena.

Santaren doktrina, Espiritu Santuaren dohain bereziaren fruitu dena, errebelazioaren iturri gardenetatik dator. Ezbairik gabe, haren esperientziaren eta pentsamenduaren benetako iturburua Jainkoaren Hitza da, Itun Zahar eta Berrikoa. Berberak aitortzen digu hori, Ebanjelioarekiko maitasun gartsua azpimarratuz. Egin diren ikerketetan, haren idazkietan Bibliako mila aipamen baino gehiago daudela ikusi izan da: asko dira Itun Zaharrekoak, baina gehienak, Itun Berrikoak.

Ederki erakuts daiteke, punturik puntu, nola duen jatorria Biblian haren doktrina teologiko eta espiritualak. Teresak aurre hartu ziola, esan daiteke, espiritualitatean Bibliako iturrietara itzultzeko joerari, eta Ebanjelioaren originaltasun eta freskotasuna ageri-agerian jarri dizkigula. Teresak altxor edo ondasun gordeak aurkitu ditu, hitz eta pasarteak bere-bereak eginik, auserdia bereziaz batzuetan. Horrela egiten du, esaterako, bere bokazioa maitasunean aurkitzen duenean, edo azalpen miresgarriaz Jainkoaganako maitasuna eta lagun-hurkoaganakoa ba-

tean lotzen dituenean, edota azken Afariko Jesusen apaiz-otoitza bereganatzen duenean, guztien salbamenerako eliz otoitza adierazi nahirik.

Beti ere Teresaren doktrinaren lehen iturri izan den Eskritura Santuaren ondoren, beste liburu espiritual batzuk ere kontuan izan beharrekoak dira. Hauek ere gogotsu irakurri zituen eta beraietatik ateratzen du bere doktrinaren parte bat. Guztietatik, ondorengo hauek aipatu behar ditugu: *Kristoren Antz-Bidea*, San Joan Gurutzekoaren eta Santa Teresa Jesusenaren obrak, *kristau*-ikasbidea, haurtzaroan buruz ikasi zuena eta bere bizitza espiritualaren lehen urratsak argitu zizkiona.

Eskritura Santuaren oinarria bilatzen du beti, *Kristoren Antz-Bidea*, San Joan Gurutzekoaren obrak irakurtzean izan zituen intuizioetan, baita hitzaldien bidez eta batez ere gogo-jardun batzuen bidez, hain sakonki markatu zuten haien bidez, izan zituenetan ere. Berak teologo izan nahi luke, eta poz-pozik dago beraren doktrina, garai hartarako, jansenismoaz markaturiko ingurumari hartarako hainbat gauza original zituenena, teologoaren artean ere onartua dela ikustean. Honela dio berak: "Jainkoa da bakarrik irakatsi didana. Ez didate liburuek irakatsi, ezta teologoek ere; horregatik neure bihotz barruan egian nagoela somatzen dut" (Maria Hirutasunarena). Maria Hirutasunarena harriturik omen zegoen, "bidetxoaren" doktrinak eta domingotar jakintsu baten, Aita Boulanger-en, idazkiek elkarren antz handia zutelako. Hark halaxe adierazi zion Teresari. Honek, zuhurtasunez eta teologiaz mesfidatu gabe, esan zuen: "Hau poza ematen didazuna! jakintsu batek, teologo ezagun batek, euskarria ematen didala jakiteak poztasun berdingabea ematen dit". Teresak benetako espiritualitateak ez duela benetako teologiaren beldurrik zertan izan, erakusten digu hemen.

5. Haren doktrinaren zabalkunde handia

Egoki da, gainera, ziurtatzea doktoregairen doktrinak zabalkunde handia izan duela, harrera ona eta eragin mesedegarria

Jainkoaren Herriarengan. Hori eliz Magisterioak haren doktrina noizbehinka erabiltzean, teologia katolikoak, fedeko misterioak eta kristau-bizitzakoak erabiltzerakoan, arreta berezia doktrina horri ematean erakusten da. Eragin horrek unibertsala izan behar du; hau da, mundu osoa hartzen duena.

Ziurtasun osoz esan genezake Teresaren doktrina espiritua-lak eragin zabal eta sakona izan duela eta gaur egun ere hala izaten jarraitzen duela. Haren idazkiak asko zabaldu dira Eliza osoan. Ehundaka argitalditan itzuliak eta zabalduak izan dira munduko hainbat eta hainbat hizkuntzatar. Batez ere *Histoire d'un âme* (Arima baten historia), geroago *Eskuizkribu auto-biografikoak* izenez ezagutzen dena, Ekialdeko eta Mendebal-deko edozenbat hizkuntzatar itzulia izan da, milioka aletan inprimatua izanik. Teresa Lisieuxkoa, estatistiken arabera, idaz-le espiritual modernoan artean gehien irakurria dena da mun-du osoan.

Idazkien zabalkundeak berak frogatzen du haren indarra eta eraginaren handia. "Bidetxoaren" irakaspen handiek hilde lu-zea egin dute gure garaian bizi izan den espiritualitatean. Tere-sa misio katolikoen zaindari izendatzeak Elizan hark izan duen eragin handia egiaztatzen du.

Haren espiritualitatearen ideia nagusiak gure mendeko Eli-zaren ondare bihurtu dira. Teresaren pentsamendua guztion ondasun dugu; hark biziki esku hartzen du gure garaiko espi-ritualitatean, honen sorreran hainbesteraino lagunduz; horrega-tik, ia ez da bereizten zer den harena eta zer ez. Teresa Li-sieuxkoa emankor egin du barru-barrutik gure garaiko espi-ritualitatea. Berak lagundu digu Eskritura Santura jotzen, espiritu-bizitzan behar dugun eguneroko iturrira bezala. Eta hori guztiori, mugimendu biblikoa eta Jainkoaren Hitzaren le-hentasuna azpimarratzen duten beste mugimendu espiritual batzuk sortu aurretik. Berak sendatu gaitu jansenismotik, Jain-ko Maitasuna dagokion tokian jarritz, ebanjelizatze berriaren mezu nagusia aurreratuz: Jainkoaren maitasuna guztiontzat.

Guztiok Eliza egiten dugun kontzientziari buruz gogoeta sako-
nak egin zituen, Pio XII.aren *Mystici Corporis* entziklikaz, Eliza
Gorputz mistikoa dela-eta, argitua izan baino lehen, eta Roma-
no Guardinik Eliza animetan esnatzen denean esnatzen dela
benetan esan baino hamarkada batzuk lehenago. Berak era-
kutsi digu pertsonak, lanean, eguneroko giroan, Jainkoaren
graziaren laguntzaz, bete-betean kristau izan litezkeela; eta
hau, santutasunerako guztiok dugun bokazioa munduan eza-
guna izan baino lehen. Berak azaldu du argi eta garbi otoitza-
ren eta sakrifizioaren balioa Jainkoaren Erreinua eraikitzeko.
Berak argitu du distira bereziaz kontenplazio-bizitzaren eman-
kortasun ezkutua Elizaren zerbitzuan.

Teresak teologia eta ipiritualitatean duen eragin honek, eta
gainera Elizak halaxe aitortu duenak, ekarri du hark isilean Va-
tikano II.eko doktrinaren kapitulu askotan eta gure historiako
gertaera espiritual askotan parte hartzea. *Lumen Gentium* kons-
tituzioaren V. kapituluak, santutasunerako dei unibertsala gai-
tzat duenak, asko zor dio Teresari. Haren irakaskuntzak zabal-
tzean, hura guztion ondare bihurtu da. Teresaren doktrina, Eli-
zaren bizitzan, legami bezala izatera etorri da; beste santuengan
nekez ikus daitekeen sakontasun eta zabaltasunez, izan ere.

Santa honen doktrinaren garrantziaren beste seinale bat,
ikertzaileen artean, hau da, biografo, historialari eta teologoen
artean, haren idazkiek eta bizitza osoak sortu duten interesa
da. Teresaren bibliografia urtero handitzen da titulu berriekin,
eta ugari dira haren pentsamendua zabaltzera emanda dauden
aidizkariak, batez ere Lisieux-en bere egoitza duen ikerketa-
zentroan.

Teresa Jesus Haurarena mundu osoan ezagutua eta maita-
tua da Eliza katolikoan eta Eliza katolikotik kanpo. Ahizpa edo
arreba unibertsal bihurtu da santa hau, guztiek maite dutelarik;
ez bere mirari harrigarriengatik soilik, batez ere fededunen
bihotzean dagoelako baizik, fedean ahizpa edo arreba bezala,
maitasunaren irakasle eta itxaropen-bidean lagun bezala. Garai

modernoetako santu gutxi jaso dituzte hark mende honetako Aita Santuengandik jaso dituen adina goratzarri.

6. Mezu iraunkor eta gaurkoa

Doktoregaiaren doktrina aztertu ostean, haren mezua ziurra eta iraunkorra delako ondorioa atera behar da, fede-altxorra berresteko eta sakontzeko balio duelarik, eta era berean, doktrina eta bizitzaren ikuspegi ezberdinak argitzen laguntzen duelarik. Honela, argiago ikus liteke doktoregaiaren doktrina bikainaren eragin berezia eta gaurkotasuna, karisma doktrinal bereziaz hornitua den aldetik. Espiritu Santuak bere Elizari ematen dion dohaina da, egia osora gidatzen duelarik, eta horretarako, garai guztietan hornitzen du dohain hierarkiko eta karismatikoz (ik. *Lumen Gentium*, 4. zk.).

Beraz, doktore aldarrikapenerako egoki da gaurkotasuna izatea eta bere garaiko Elizarentzat mezu esanguratsua izatea. Badakigu Ebangelioa betikoa dena, baina haren atemporaltasunean mezu bizi eta berriztatzaileak dirdir egitea komeni da, gure munduko pertsonen bihotza argitzeko gai izan dadin.

Teresaren doktrinaren oihartzuna eta eragina egiaztatzeko azterlanean, haren doktrinak mende honetan izan duen eragin handia erakutsi nahi izan da, baina baita haren presentziaren gaurkotasuna ere, bai komunikabide modernoetan, bai fededunen bihotzetan, haren mezua erakargarri gertatzen baitzaie, haren heriotzaren lehen mendeurrenaren ospakizunek eta haren erlikiak batetik bestera erabiltzeak eta alde guztietatik eskatzeak erakusten dutenez.

Teresa Lisieuxkoak Jainkoaren guztienganako maitasunaren mezua errepikatzen digu gaur ere. Eta doktrinazko sintesi hau eta guztiengana iristeko grazia dira Eliz Irakasle mailara jasotzeko gai egiten dutenak.

Irakasteko karisma hau ez da iraganeko zerbait, gaur-gaurkoa baizik. Elizaren eta gizadiaren historiako une batzuetan,

beraren mezularien bidez, doinu bereziaz entzuten den Ebanjelioaren gaurkotasunarekin.

Gaur egun, bereziki, Teresa Lisieuxkoa Jainkoaren mezulari bezala agertzen zaigu bigarren milurteko honen amaieran eta hirugarrenaren egunsentia laster datorrenean, San Joan Ebanjelariaren hitzak errepikatuz: "Jainkoa maitasuna da" (1 Jn 4,8). Hona hemen lehenengo ebanjelizazioaren eta berriaren sintesia.

Teresa Jesus Haurarena ebanjelizatzaile eragilea eta Jainkoaren maitasun errukitsuaren misiolari gartsua da guztientzat, eta entzutea bakarrik eskatzen duen salbamen-mezuaren aldarrikatzailea. Santa honek, gazte baten freskotasunez Ebanjelioa ulertuz eta espiritualitaterako Ebanjelioa berriro zabalduz iragarpen xume eta barruraino sartzen denaz, mirespen eta esker-ronez, Jainkoa maitasuna dela esango digu, pertsona guztiak maite dituela Jainkoak errukiaren mugetaraino: pertsona bakoitzak entzun eta maitatu egin behar du Jainkoa, uste osoz eta haren maitasun errukitsuan norbere burua utziz.

Zertan datza haren doktrinaren gaurkotasuna?

Gazteei, Teresak, goiz-goizetik Ebanjelioaren eskolan lor daitekeen kristau-heldutasuna agertzen die bere bizitzan bertan, baina Elizaren eta gizartearen eraikitzaile izatea ere proposatzen die, biziki eta erro-errotik Jesusen aldeko aukera egitekotan... Teresaren gaztetasunean, Ebanjelioa bete-betean bizi izateko sasoirik egokienean, sortzen dira Kristoganako gogo bizia, sentiberatasun gartsuz bizi izan duen maitasuna, Elizan bokazio guztiak hartzen dituen gurari handien ausardia errealista. Teresa Eliza gazte baten Doktore izango da; haren bizitzan egiaztaturik ikusten dugu Jainkoak gazteei ere ematen dizkiela jakinduriazko ondasunak.

Apaizei, jasotako graziaren duin izango den santutasunerako bokazioa jartzen die begien aurrean eta berak otoitzaren laguntza ziurtatzen die.

Kontenplalariei, monasterioan elkar-maitasunean bizi izandako otoitzaren eta sakrifizioaren balio handi-handia, eta mundu osora zabaltzea gogorarazten die.

Misiolariei bihotza bero-bero egiten die, misiolari-santutasunaren balioa gogoraraziz eta otoitza eta apostolu-ekintza elkarren osagarri direla esanez, benetako misiolaria santua delako.

Jainkoari sagaratutako pertsoneri, berriro proposatuko die berak, biziki, hautatze ebanjelikoaren erradikaltasuna, Kristoren zerbitzuan dohaineko maitasunari eskainitako bizitzaren hautapena.

Laikoei, egunero Jainkoaren borondatea betetzean datzan santutasun-bokazio unibertsalaren bide normala erakusten die.

Bekatariei, ez etsitzeko diotse, Jainkoaren errukia azkengabea baita. Jainkogabeei eta agnostikoei, bere bizitzaz gogorarazten die badagoela erantzunik gure bizitzaren eta izaeraren geroaz, norabideaz egin ohi diren galderentzat.

Guztiei erakusten die berak santutasunerako bokazioa Ebanjelioaren tolesgabetasun-bidetik eta eguneroko zereginen bidetik, zerua lurrera jaitsi dadin Aitaren nahia egitea den bidetik. Berak karismarik onenetara jotzea proposatzen du, beste guztiak baino bikainagoa den bidetik jotzeko. Horixe da, izan ere, maitasuna, Eliza barru-barrutik bar egiten duena eta hura bere misioa betreskuratzera daramana.

Teresa, gainera, Espiritu Santuaren karisma doktrinalaz hornitua izan dela ikusiko dugu, Eliza osoarentzako, benetako dohaina, emakume bati, lekaino kontenplalari bati emana. Gazte-gaztetan, sasoirik ederrenean, izan daiteke Teresa, bere era-ra, aldi herean irakasle eta lekuko, gurea bezalako munduan; maisuen jakinduriatzeko intuizioen eta santuen bizitza-testigantza-zen beharra somatzen den munduan.

Honela, Teresari senak eman dio bera, zeruan, lurrean on eginez biziko dela. "Doktore" titulu berri honekin jarrai dezake hark Ebanjelio-bideak erakustearen lana, Jainko-maitasu-

naren lekuko izanez hirugarren milurteko gizon eta emakumeentzat.

Asko dira haren gaurkotasuna azpimarratzen duten autoreak. Martini kardinalak oraintsu idatzi du haren fede-gauaren esperientzia aztertuz, eta aldi berean, haren gaurkotasuna, kristau bakoitzarentzat eredu guztiz gaurkoa dela azalduz. Teresa lagunkide da oso-osoan Jainkoarekin eta lagunkide bere neba-ahizpa guztiekin, baita Jainkoagandik urrun dauden, edota hobeki, beren buruak hala ikusten dituzten guztiekin ere.

Gaur egun indar berriz sortu da Teresa Lisieuxkoaren doktrina, esperientzia eta mezuarekiko interesa. Beharbada gure garaiko giro espiritualari erantzuten dio interes horrek. Elizan, gainera, espiritualitate bizi eta ebanjelikoaren, zeharo gizatiarra eta Eskritura Santuan ongi oinarritua denaren, gogo bizia nabari da maila guztietan.

Teresaren bibrazio eta fintasun espirituala erronka bat da gaur eguneko kristauentzat; Jainko-maitasuna eta harenganako zintzotasunaren graziaz argituriko esperientzi bila ari direnentzat.

Gaitzen hainbeste profeta agertzen dira, zerutik etorrita bezala zigor eta hondamendien mezuak zabaltzen; fede eta itxaropenezko doktrina, Jainkoaganako eta lagun-hurkoaganako maitasuna eta, beraz, kristau-errebelazioaren ardatz nagusia baztertzeko arrisku handiz, horren ordeztu errebelazio pribatu eta susmagarriei men egiteko... Horien guztien aurrez aurre, Teresa Lisieuxkoak kristau-fede eta itxaropenaren edukia dakarkigu indar berriz. Baina aldi berean, hark fede honen zentzu subjektiboa agertzen du; Jainkoagan bere burua oso-osoan uzten duena eta fede-ekintzak, era berean graziaren fruitu direnak, sortzen dituenak, "guztia baita grazia". Baina hark itxaropen teologalaren bizipen konkretua ere esnatzen du, izan daitekeenik eta gradurik gorenean eta maila unibertsalean, "guztientzako itxaropena" aldarrikatuz, Teresa Lisieuxkoaren ikasle den H.U. von Balthasar-en teologiaren hari nagusi bihurtu dena..

* * *

Teresa Lisieuxkoa gazte bat da. 24 urterekin hil zen, eta gazte-gazterik lortu zuen hark santutasunezko eta jakinduriatzko kristau-heldutasuna. 14 urtez gero, Jesus Maisuaren eskolan, jaingo-jakinduriatz argiturik ikusten zuen bere burua. Teresa Lisieuxkoa berarizko eran izan liteke Eliz Irakasle, gaztea eta gazteentzat. Hurrengo milurteko protagonista izango diren gazteen sentimenduak argituko dituen espiritu-bizitzako eta Ebanjelioko maistra.

Julen Urkiza - Luis Baraiazarra